



*Vencidos,
Frederic Rigoel
Garaituak,*

*MAITASUN-ORDU BI ETA ICURTZI ZENBAIT erakusketarako testua.
Texto para la exposición DOS HORAS DE AMOR Y VARIOS MINUTOS DE ROCE*

Garaituak,

*...quelques-unes se tuèrent
et les autres comprirent
qu'il fallait trouver un endroit où aller*

-La fable du Dôme

un peu plus de lumière, un peu moins de certitude

-Jacques Brault

Urte hauetan guztietan pentsatu izan du *Beat* belaunaldia horrela deitzen zela erritmo bat markatzeko zuen gaitasunagatik, seguru asko jazzarena - *hor dago* botaz, New Yorkeko beboparen hain bereizgarria den hori. Duela gutxi konturatu zen garaitua hitzetik datorrela; beaten. Ataritik jaisten da, korronteak eramanda. Atalasea gurutzatzen ari dela, bizilagun batekin topo egiten du, oso jatorra, eta fruta bila doala esaten dio. Polizia-autoaren argiek segundo batean lapurtzen dute farolen argi laranjaren protagonismo osoa. Keinada urdin estroboskopikoak agurrak laburtzen ditu, nahiz eta, egia esan, une horretan bertan ez dagoen kezkatuta frutagatik. Eskuinera bira egiten du, bizilagunaren kontrako noranzkoan, batzuetan –oso gutxitan–, San Frantzisko kalean dabilen aire freskoari jarraituz. Zuhaitz inkongruente batzuen itzal lotsatien azpitik oinez doa, *NIRE ADISKIDEEK ZAINTZEN NAUTE* pintadaren albotik, plazara iritsi aurretik. Irribarreek, begiek eta hortzek itsutu egiten dute erdi-iluntasunean, mahaia osatzen duen karratuaren inguruan flotatzen. Antezko eta larruzko txamarrez babestuta daude. Automatismoari amore emanez esertzen da, edo, hobeto esanda, eguneroko saiakuntza baten parte izatearen intuizioari amore emanez, aktore eta rol trukagarriekin: inguruak lausotzen dituen baina, hain zuzen ere, etengabe birdefinitzeko aukera ematen dien eremu bat. Elkarrizketa jarraitzen saiatzen da, gaur egungo kalkuluen arabera Martera iristeko behar den etengabeko bidaiaren denborari buruzkoa. Zazpi hilabete. Auzo bat ezagutzeko ere denbora hori behar da, jakiteko oraindik zein tabernak jartzen duen kaña bi berrogeiren truke, fruta non erosi jakiteko, bizilagunak ezagutzeko.

Banku batzuk haratago, Sugea dago, pozoi gazi-gozoa botaz kasu egiteko adorea duenari. Bizi beharko zukeena baino askoz bizitza gehiago bizi izan ditu, eta lepoko tatuajeek begi-ninien belztasuna areagotzen diote. Ahots zakarrez hitz egiten du, airea irentsiz. “*Gazteok, maitasuna ez da existitzen, baina aurkituko duzue...*” Iragartzen duenaren eta bere egoeraren arteko talkak saihestezina dirudi, eta gero eta gehiago erortzen da aulkitik “*...nirea bezalako zortetik izan ezean...*” inoiz lurra ukitu gabe. “*Zu, ibili ohi zarela...*” Tente-tente eginda, badirudi burmuina zartaka lehertu diotela, baina jariatzen jarraitzen du, beste zigarro bat eskatzen duen odola bezala, begiak zabalduz, hitzak noiz kateatuko zain, baina ihes egiten dute soilik. “*...nire Ford Nova emango dizut...*”. Astiroago hitz egiten dute, ahots latzak hipnotizatuta. Sorginkeriaren helburua da laster garittoa itxiko dutela. Izan ere, adin bereizezineko mutil bat dago aulkiak jasotzen “*...baina jakin dezazula...*”, eta zorabiatuta joango dira beste bero baten bila, beste iturri baten bila, komeni denaren bila; beste garagardo bat kasu batzuetan, etxea kasu askotan “*...metxeroak ez duela funtzionatzen*”. Sugea, bere jakinduria poetiko guztiarekin, beste mamu bat bihurtuko da, taberna batzuetako terrazen inguruan dabilena.

Abiarazi gabe, mila orduko abiaduran doaz. Haizetakoan zehar, zerua konstelazio batean lehertzen da. Hatz Txiki ezpainak margotzen ari da, alboko ispiluan begira; bere ahotsa autoko bidaiari-lekuan entzuten da, irrtiaren interferentzien artean. Asko bizi nahi du, geratzen zaiona baino askoz denbora gehiago. Eztul sakon bat entzuten da. Hemen jarraitzen du azala eta begiak lehertu ondoren, orbitak hustuta. Mihia ateratzen du, hozkia ematen duen imintzio bat eginez. Bera izaten jarraitzen du, haragia usteldu ondoren. Pitzadura bat dago ispiluan. Piercingaren isla lerrokatzen du berarekin, metalezko distira biderkatu egiten da, eta disko-bola bihurtzen da. *Hezurretan gordetzen da memoria, noski*. Autoaren barruko argiaren bonbilla bat-batean erre da. Joanak zigarro bat pizten du eta atzeko eserlekutik erantzuten dio, hauts eta ke artean:

“— Pentsatu duzue... zelula bakoitzak bere barruan erregistratuta dauka ugaltzeko, errepikatzeko gaitasuna; ez da azalera bat bakarrik, kontaktzen ari den istorio bat baizik, emaitza desberdinak dituen bide bat”. —Besurrea zigarroaren murrarekin ukitzen du.— “Tatuatuta gaude beti, baina barrutik”.

Autotik jaitzi dira ateen *klak* soinuarekin, gauza bakoitza balio berdinean finkatzen duen hautsontziaren distira batez estalita. Gaua, diskriminatzen duen heinean, baldintza-berdintasuna da. Indarkeria-berdintasuna. Santuak uxatzeko jantzi dira, beren poroetan jarri eta bigarren geruza bat osatu aurretik trabatzen dituzten besteren partikulez josita. Kutsatze horrekin larru berriak sortzen dituzte, Hatz Txikik jarri duen ezpainetakoa bezala, baina ikusezina. Zapaltzen duten asfaltoa irudipen horixka da, espaloitik jaisten dira antrora hurbiltzeko, eta atezainen silueta geldiak igar ditzakete, neoi arrosek ebakiak. Makina baten soinu zaratatsuetarantz doaz, lortu gabe mugatu nahi dituen gehiegikeria batek zeharkatuak. Aurreko kalezuloan, kuadrilla batzuk lurrean eserita daude. Aluminiozko latak eskuan dituztela, inguruan dutena hartzen saiatzen dira edo ongi pasatzen saiatzen dira. Ozen hitz egiten dute, baina trenbideak haien hitzak jaten ditu, oihuak irensten ditu, eta agian hiriko beste leku batean botatzen ditu. Horrek ez die eragozten isilik egotea. Askotan, metxeroaren harria hausten da, eta erretzeari uzten diote pixka batean. Jaiki eta tabakoa suaren truke aldatu behar dute. Gertatzen da, baita ere, pikutara bidaltzen dituztela. Pixka baten ondoren, zigarro-mutxikinak lurrera bota eta sartzeko ilaran jartzen dira. Argazki-habia bat dira, eta ez dakite oso ondo zergatik dagokien, agian han agertzen direlako, orban beltzak hondo ezagunen gainean; arropa traizionatuz, basakeriaz edo, besterik gabe, inertziaz bizi izan duten leku bateko luzapenak. Gatazkatsua dena, ezinbestekoa dena, maitasun gainezkatu horretara iristeko balio duten hitzak aukeratzean datza.



Auritz Iñurrieta Orbezua

Do I accept this ending? , 2023.
Olio-pintura mihisean
47x61cm



Ander Amuriza Orue

Para encontrar una vista del Fuji como esta.

Tinta txinatarraren ohialean

20x28cm



Katza

*Tanto Lontano.
Argazkia.*

Testuaren egilea / Autor del texto:
Frederic Riopel.

Diseinua eta maketazioa /Diseño y maquetación:
Leire Lacunza Miranda

Irudiak / Imágenes:

Auritz Iñurrieta Orbezua

Do I accept this ending? , 2023.
Olio-pintura mihisean /Óleo sobre lienzo
47x61cm

Ander Amuriza Orue

Para encontrar una vista del Fuji como esta.
Tinta txinatarra ohialean / Tinta china
sobre tela.
20x28cm

Katza

Tanto Lontano.
Argazkia.

Euskarara itzultzea /Traducción a Euskera:
Euskalgintza Bulegoa, S.L.

Inprenta / Imprenta:
Gráficas R.D.

Erakusketa / Exposición:
Maitasun-orðu bi eta igurtzi zenbait.
Dos horas de amor y varios minutos de roce.

Artistak: **Auritz Iñurrieta Orbezua, Ander Amuriza Orue eta Katza.**

Bitartekaritza / Mediación: **Leire Lacunza Miranda**

2023ko urriaren 26tik azaroaren 26ra
Del 26 de octubre al 26 de noviembre de
2023.

Vencidos, de Frederic Riopel ha sido escrito entre septiembre y octubre de 2023 para la exposición *Dos horas de amor y varios minutos de roce*. Durante el proceso de elaboración del texto ha mantenido una correspondencia por correo electrónico con lxs artistas Auritz Iñurrieta Orbezua, Ander Amuriza Orue y Katza.

Frederic Riopelen *Garaituak*, testua 2023 ko iraila eta urria bitartean idatzi da eta *Maitasun-orðu bi eta igurtzi zenbait* erakusketarako egin da. Testua idazteko prozesuan zehar, Auritz Iñurrieta Orbezua, Ander Amuriza Orue eta Katza artistekin harremanetan egon da posta elektronikoz.



HARRIAK

eremuak

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Zumaiako Udala
KULTURA SAILA



ZUMAI
BIZITZEKO
DA